

Liburuxka honetan landu diren helburuak dira :

### **Gramatika**

-Perpaus motak (*berrikusketak*) : adierazpen perpausak, harridura perpausak, galdera perpausak, aginte perpausak + puntuazio ikurrak . ! ?

### **Aditza**

-Subjektu motak : NOR eta NORK

### **Hiztegia/ortografia**

-Hitzak alfabetikoki ordenatu (*berrikusketak*)  
-Hiztegi ezberdinetan xekatu eta irakurri, erranahia, adibidea, sinonimoa,...  
-Gaiaren araberako hiztegia, sinonimoak eta antonimoak


### **Irakurketa, idazketa, ahozkoa**

-narratzailearen identifikatzea  
-narrazio baten denboraren, tokiaren eta pertsonaien aurkitzea

Liburuxka honi lotu jokoak : 14

Liburuxka honi lotu euskarriak : /

### 1. autonomia liburuxka



Eskola sartzea proiektua

Ipuineko hitz hauen sinonimo bat emazu.

andereñoa : .....

jaio : .....

oso : .....

mutil : .....

ahotsa : .....

ihes egin : .....



Hitz horiek alfabetikoki ordena itzazu.

.....  
.....  
.....

Hitz horietarik bat hauta ezazu eta hiztegiko definizioa idatz.

..... : .....

.....

.....

ETORRI eta JOAN aditzen forma trinkoekin osa ezazu.

Elbira familiarekin Zumaiatik Donostiara .....  
bizitzera.

Elbira egunero lanera ..... ikastetxera.

Berrehun bat ikasle ..... euskaraz ikastera.

Frankismotik ihes Iparraldera .....

Zenbait urte berantago Donostiara, .....  
bere etxera.

Hauta ezazu ETORRI edo JOAN eta saia zaitetz jokatzten

ni .....

hi .....

hura .....

gu .....

zu .....

zuek .....

haiek .....



Ergatiboa zuzen erabilia izan da ?  
Beharrez zuzendu ezazu !

Zein langilea den Elbira Zipitria !

.....

Herri anitzetatik heldu ziren haurrek Elbirarekin ikastera.

.....

Matematikak kanikekin eta makiltxoekin egiten zituzten haurrek.

.....

Landareen ezagutzeko, marrazkiak eginarazten zizkien Elbira.

.....

Elbirak uste zuen kantatuz eta olerkiak erranez euskara ikasten zela.

.....



Ondoko aditzetan zein da subjektua ?  
**NOR? NORK ?**  
Xeka ezazu eta idatz ezazu...

Hautuan :

NOR : ni, hi, hura, gu zu, zuek, haiek

NORK : nik, hik, hark, guk, zuk, zuek, haiek

Ad : **Esaten die**

NOR: .../.....

NORK: hark

**Nekatzen zen**

NOR : .....

NORK: .....

**Saiatu ziren**



NOR: .....

NORK\_: .....

**Euskalduntzen zituen**

NOR: .....

NORK\_: .....



HIZKIZ HIZKI Ipuineko hitzak irakur eta idatz itzazu.

Ipuineko trakeskeriak zuzendu itzazu.

R  
E K  
L I  
O A  
K

.....

T Z  
N E  
A R  
A K  
I

.....

Z  
U J  
T O  
S L  
A

.....



Elbira Getarian sortu zen.

.....

Lau anai arreba zituen.

.....

Berrehun bat neska ibiltzen ziren Elbiraren eskolan.

.....

Hegoaldetik Ameriketara joan zen ihes 1936an.

.....

Iparraldean euskara irakastetik gelditu zen, aspertua zen.

.....

Donostiara itzultzean aisialdi leku bat sortu zuen bere etxean.

.....

Haurrak ateraldiz zooru eramaten zituen Elbirak.

.....



Perpaus mota egokiaren zenbakia emozu esaldi bakoitzari.

- 1 adierazpen perpausa
- 2 harridurazko perpausa
- 3 galderazko perpausa
- 4 aginte perpausa

Zenbat landare eta zuhaitz izen ! .....

Aski haurrak ! Ez dut gehiago inor entzuten ! .....

Zer nolako aberastasuna ! .....


Euskaraz irakastea debekatua zen. ....

Eskola bizia nahi zuen. ....

Bazekien beste hizkuntzarik Elbirak ? .....

Elbirak ez zien haurrei baizik irakasten euskara. ....

Elbirak burasoei ere euskara irakasten zien ! .....



**Elbira Zipitria andereñoa**

Galdera hauei ihardets iezaiezu ipuina eskutan.

- 1/ Nor da narratzailea ?  
.....
- 2/ Zein dira aipatzen diren leku ezberdinak ?  
.....  
.....
- 3/ Eta denborak ? Urteak ?  
.....  
.....  
.....
- 4/ Elbiraz gain nor dira aipatzen diren beste pertsonak ?  
.....  
.....  
.....



Lagun batekin, batek Elbira eginez eta besteak apeza, ondoko elkarrizketa hau irakur ezazue, doinua emanez.

Behin meza ondotik Elbira sakristiara sartu zen apezarekin mintzatzeko. Elbirak apezari :

« -Denak ez gara seme ! Denak ez gara aita ! Denak ez gara anaia ! »

Eta apezak harriturik :

« -Zer ? Baina zendako erraten duzu hori ? »

Elbirak erantzun :

« -Zendako ? Galdegiten duzu ? Mezan beti emazteen aipatzea ahanzten baituzu ! »

Apezak orduan :

« -Eta nola nahi zenuke erratea ? »

Elbirak :

« -Xinple da, seme alabak, anai arrebak eta aitamak edo burasoak ! »

Apezak, doi bat ahalge :

« -Ados, ados, ez nuen uste hain garrantzitsua zenik ! »

Elbirak harro :

« -Bai, hala da ! Eta eskertzen zaitut aldaketa onartzeagatik ! Ikus arte ! »

« -Ikus arte Elbira. »



## Asmakizunak



Laguntza irakurriz eta hizkiak ordenatuz liburuko hitzak asma itzazu :

\*Horregatik ziren omen Donostirara joan bizitzera :

N A A G T K I L R N E A

.....

\*Euskara maite duena horrela deitzen da :

Z L E S K U A A L E

.....

\*Iparralde Lapurdiko herria :

B I U R Z U

.....